

Labayru Ikastegiak 25 urte bete ditu aurten

Adolfo Arejita: "Euskarak gizartean duen kalitatean Labayru Ikastegiak ere hainbat lagundu du"

25 urte bete ditu aurten Labayru Ikastegiak euskal kulturaren aldeko lanean. 25 urte honetako langintzaz galdezka joan zaio *Berripapera* Labayru Ikastegiko buru Adolfo Arejitari.

Berripapera: Balorazio egiteko ez da urte kopuru motza: 25 urte.

Adolfo Arejita: Jakina da Labayru Ikastegia sortu aurretik ere bazirena geroago erakunde honen babespera erakarriko ziren ekinbide garrantzitsuak, guztiok ere 1970ean abiarazi zirenak: Derioko Udako Euskal Ikastaroa, euskaldun helduei euskara irakasteko sortua; Etniker taldea, Barandiaranen zuzendaritzapean sorturiko etnografia-mintegia; eta Euskal Biblioteka, gaurengungo liburutegi nagusiaren ernamina. Beraz, hogeita hamarretik gora urte daramatzate Ikastegiaren arlo nagusiok bigeginen.

B.: Irautea bera ere arrakasta handia da. Nola egin duzue lan?

A.A.: Ikastegiaren arrakastaren giltzetariko bat, kalitatearen aldeko apostua izan da: asko eta edozelan baino, nahiago izan da gutxiago eta ondo egin. Emaitzak begi-aurrean daude: gizartean diren euskara-profesional asko gure Ikastegian haziak edo trebatuak izan dira: irakasle, itzultzaile, teknikari, kazetari, esatari, idazle...

B.: "Gutxi eta ondo lan egin" diozu, baina katalogo zabala duzue...

A.A.: Bai, hori ere egia da: ikas liburuak, irakur liburuak, literatura klasiko eta berriko liburu-bildumak, gramatika eta filologia azterlanak, atlas etnografikoa, herri-literatura, aldizkariak... Eus-



karak gure gizartean duen kalitatean Labayru Ikastegiak ere hainbat lagundu du.

B.: Herri-erakundeekin sinatutako hitzarmenak zer-nolako onurak ekarri dizkio Ikastegiari?

A.A.: Ezinbestekoa zen lan eraginkorra egingo bazen, eta aurreantzean ere hala izatea espero dugu. Euskara eta euskal kultura arloan ikerketa- edo material-sorkuntza programak aurrera ateratzeak denbora eta lana eskatzen du. Guk ahalik eta profesionalik gaituenak ipintzen ditugu zeregin bakoitzerako, baina lana ordaindu egin behar da, eta bitarteko seguruak behar dira horretarako. Herri-erakundeekin sinaturiko hitzarmenak egonkortasuna gehitu dio Ikastegiari. Gure programak gehitzen doaz eta horrek finantziabideak bilatzera behartzen gaitu.



Labayru Ikastegiak 25 urte bete ditu aurten



PERTSONAJEA:

Idoia Estornes, *Auñamendi* Entziklopediaren zuzendaria

LABURRAK:

Kultura Sailaren laguntza Euskal Idazleen Elkarteari

EIZI Eren jardunaldiak Donostian urriaren 2tik 5era

Urriaren 11n eta 12an HPS Helsinkin



Xiberoko Botzak 20 urte

Euskal jatorriko idazleak AEBetan



EBPNren jarraipenerako aplikazioa erabilgarri

Momo filma euskaraz



laburrak

Kultura Sailaren laguntza Euskal Idazleen Elkarteari

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 60.121 euroko diru laguntza emango dio aurten Euskal Idazleen Elkarteari, bi erakundeek 2000-2004 urteetarako sinaturiko hitzarmenaren arabera. Jaurlaritzaren laguntza hainbat ekimen bideratzeko erabiliko du idazleen elkarteak. Besteak beste, *Hegats* aldizkaria kaleratzeko, literatur tailerak egiteko, sustapen ekintzak antolatzeko, kazetaritzako eta literatura-ko prosa erretorikoari buruzko kongresua eratzeko, Galeuscan parte hartzeko, etab.



EIZIEren jardunaldiak Donostian urriaren 2tik 5era

Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak (EIZIE) literatur itzulpengintzari buruzko jardunaldiak burutu ditu Donostiako Miramar Jauregian, urriaren 2tik 5era. Jardunaldiek bat egin dute CEATL-en (Conseil Européen des Associations de Traducteurs Littéraires) urteroko biltzarrekin eta, ekitaldien barne, testu sakratuak eta liturgia euskaratzen jardundako aitzindariak omendu dituzte.

Urriaren 11n eta 12an HPS Helsinkin

Urriaren 11n eta 12an hizkuntza gutxiengo historikoak sustatzeko helburu izango lukeen egitura komuna sortzeari buruzko topaketa egin da Helsinkin (Finlandia). Europako hizkuntza



gutxiengoen ordezkariek bildu dira bertan eta tartean izan dira Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako arduradunak. Patxi Goenaga sailburuordeak, esaterako, hitzaldia egin du lege neurrien araberrako hizkuntzen sustapenaz.

pertsonajea

Idoia Estornes, *Auñamendi Entziklopediaren* zuzendaria



Berripaperaren aurreko alean idatzi genuenez, *Auñamendi Entziklopedia* sarean da berriro, www.euskomedia.org helbidean, urte eta erdi Internetetik kanpo izan eta gero. Bernardo Estornes Lasaren ekimenez bultzatutako lan eskergea Euskal Herriari buruzko datu baserik handiena da eta eguneratzen jardungo dute 2005. urtea arte, Idoia Estornesen zuzendaritzapean.

Estornes Lasaren lan guztia sarean sartzeko proiektua 1996an mamitu zen. *Auñamendi Entziklopediako* buruak Goio Monreal Eusko Ikaskuntzako lehenakariarekin akordioa sinatu zuen material guztia informatizatu eta datu basea eguneratu eta informatizatuzko. Idoia Estornesen zuzendaritzapean sarrera

guztien azterketa egin zen eta berehala antzeman ere bai belaunaldi berria sortua zela 1970az gero: izen berriak ari ziren politikan, gizartean, kulturean, kirolean... Harrezkero, 2000ko abenduan, Eusko Ikaskuntzak —*Auñamendi Entziklopedia* sarean duen erakundeak— akordioa sinatu zuen Eusko Jaurlaritzarekin informatizatutako lan guztia sarean jartzeko asmoz, hau da, 50 tomoko 60.000 irudi eta 40.000 orri.

Idoia Estornesek zuzentzen duen entziklopediak hiru sail ditu. Lehenengoan, *Entziklopedi Hiztegia* izenekoan, euskal jakintzaren arlo guztiak batzen dira. Alfabetikoki ordenaturik dago eta ehunka mila artikulua biltzen ditu, Euskal Herriari buruzkoak denak.

Bigarren atalean, monografiaren bilduman, Literatura, Euskal Joke eta Kirolak, edota Euskal Herriko Historia Nagusia izeneko liburukiak ageri dira. Hirugarren atala *Eusko Bibliographia* bilduma da, Jon Bilbao Renoko Unibertsitateko irakasleak urteetan egindako lana.

2005 urtera bitarte, Idoia Estornesek zuzenduriko 50 laguneko taldea sarrera berriak aztertzen, zaharkituak baztertzen eta sail berriak egiten ariko da, Eusko Jaurlaritzarekin sinaturiko hitzarmenaren arabera.

Auñamendi Entziklopedia, munduan beste inon ez parekorik, ez aurrekaririk duen lan ikaragarria.



Xiberoko Botzak 20 urte


1982ko abuztuaren 4an hasi zen emititzen Zuberoako irratia

Joan den abuztuaren 4an hogeitau urte bete ziren *Xiberoko Botza* Zuberoako irratia lehen emisioa egin zuenetik. 1982ko egun hartan, arratsaldeko bostak inguru, lehen aldiz entzun ahal izan zuten zuberera irratia uhinez zabaldurik. Mauleko Irabarne jauregia izan zen hastapenetan *Xiberoko Botza*ren habia, nahiz eta hiriburuko karrikan duen egoitza, egun.

Hiru ordu emititzen zuten irratia orain hogeitau urte, arratsez. 1986an, egun beteko emanaldiak eginen hasi zen irratia, 40 edo 50en bat laguntzaileen sostenguz, teknikari lanak eta emanaldiak berak segurtatzen zituztenak, alegia. Harrezkero, gora egin du *Xiberoko Botzak*, eta *Irulegi Irratiarekin* elkarlanean jardun zuen lehenengo, eta Baionako *Gure Irratiarekin*, ondoren. Horrek profesionaltasuna eragin du, eta laguntzaile kopuruaren murriztea. Egun, goizeko 6:30etatik gaueko 21:00ak arte, beti dago norbait antenan, langileek segurtatzen baituzte emanaldiak.

Hemendik goiti, berriz, hurbiltasunari atxikiz segiko du *Xiberoko Botzak*. Bestalde, teknika saila bereziki zainduko du, hagitz lurralde menditsua baita Zuberoa eta errepikagailuak behar baitira. Azkenik, bertako euskalkia bultzatuko du irratia, euskara gero eta gibelerago ari baita Zuberoan; esate batera-

ko, egiten dituzten hamar elkarrizketetarik zazpi-zortzi, frantsesez eginak dira.



Euskal jatorriko idazleak AEBetan

Robert Laxalti buruzko liburua argitaratu du David Rio irakasleak

Robert Laxalt idazlearen bizitzari eta lanari buruzko liburua argitaratu du UPV-EHUko irakasle David Riok. Nevadako idazleari buruz ez ezik, idazle euskal amerikarren gainean ere mintzo da irakaslea. Honek liburuan dioenez, euskaldunok Ipar Amerikako literaturan dugun ahotsa da Robert Laxalt eta euskaldun jatorriko idazleengan



eragin duena, gainera. Izan ere, Frank Bergon, Monique Urza Laxalt eta Gregory Martin, Nevadako idazlearen urratsei segika ari dira eta euskaldunak jartzen dituzte beraien lanetako protagonista. Oraindik, hala ere, "Robert Laxalt dugu, ingelesez, euskaldun bozeramaile literariorik onena", David Rio irakasleak dioenez.

EBPNren jarraipenerako aplikazioa erabilgarri




Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzen ari diren udalen esku jarri du EBPNren jarraipenerako web aplikazioa, HizPo-Net sarearen barruan.

Tresna horrek udaleko plan nagusia osatzeko urratsak zehazten laguntzen du; halaber, plan nagusian ezarritako neurriak eta ekintzak epe zehatzetara ekartzea, horien arduradunak izendatzea eta giza zein diru-baliabideen estimazioa egitea ahalbidetzen du, hainbat kontsulta eta txostenen bidez. Gainera, web aplikazio hau udalen eta HPSren arteko komunikazio-bide ere bada.

Hortaz, udalerriko egoeraren diagnostikotik abiatuta, Udaleko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia formulatzen laguntzen du aplikazioak, eta, ondoren, plan estrategikoa finkatuta dagoela, urtean urteko kudeaketa-plana zehazteko aukera ematen du, ekintza zehatzak, aurrekontuak, arduradunak, adierazleak, eta abar bertan jasoz.

Software honen bidez, beraz, udaletako EBPNren arduradunek errazago eta azkarago egingo dute helburuen eta ekintzen jarraipena, emaitzen arabera beharrezkoak diren aldaketak edo egokitzapenak bideratuz.



Momo filma euskaraz

Michael Ende idazlearen *Momo* liburuaren film bertsioa euskaraz ikusi ahal izan dugu Euskal



Herriko zinema nagusietan. Idazleak 1973an argitaratu zuen izen bereko nobela, arrakasta handiz argitaratu ere, obraren 6 milioi ale baino gehiago saldu baitira harrezkero mundu osoan eta 35 bat hizkuntzataraz itzuli; euskarara, besteak beste.

Berez, zinemarako proiektu behar zuen *Momok*, baina sekula grabatu ez zenez, liburua argitaratu zuen Michael Endek. Ez da film egiten duten Enderen lehen lana, lehenago ere *Istorio amaiezina* zinema pantailetara eraman baitzuten.

Enzo d'Alzo zinema zuzendaria arduratu da Enderen liburua zinemara aldatzen eta, ondo-

rioz, Momo neskatilaren eta munduaren denbora ostu nahi duten Gizon Grisen arteko borroka irudietan jartzen.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16
e-posta: I-Sosoaga@ej-gv.es

Euskara

Castellano

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....

Herria:

kodea:Lurraldea:.....

Tel.:

e-posta: